



2023SPLE0012
12.bilera: OHIKOA 2023/10/26

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2023/12

EGUNA: 2023/10/26

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:30

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbietta Egaña.

EH Bildu udal taldea

Gilen Garcia Boyra.

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue.

Orain Deba udal taldea

Isidro Aristi Oruezabal.

Bertaratzea desenkusatzan du:

Edurne Aristi Careaga. (EH Bildu udal taldekidea)

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

1.- Aurreko bilkurei dagozkien akta zirriborroak onartzea, hala badagokio.

2023ko irailaren 28an, egindako osoko bilkuraren akta Udalbatzari aurkeztu zaizkio, onar dezan.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du 2023ko irailaren 28an, egindako osoko bilkuraren akta.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetzen du ea inork zerbait adierazi nahi ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Bertaratutako inork ez du inolako adierazpenik edota galderarik egiten, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

3.- Vialine enpresak kudeatutako 2023ko trafiko isunei buruzko Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetzen du galderak edo iradokizunak ote diren gai honen harira.

Ez dago ez galderarik ez iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

4.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udaleko 2023 urteko 2. kreditu aldaketa.

Debako Udaleko 2023/02 kreditu aldaketa aurkeztzen da, guztira 435.436 eurokoa, honako xehetasun honekin:

GASTUAK		
Kap.	Kontzeptua	Zenbatekoa
1	PERTSONALAREN NOMINA	79.450,00 €
2	HONDARTZAKO SOROSPEN ZERBITZUA	51.550,00 €
2	ARGINDAR HORNIKETA. IBERDROLA	86.542,00 €
2	ARRISKUAN DAUDEN ADINGABEAK	23.000,00 €
2	DEBAKO ZEZEN PLAZA	31.000,00 €
2	GAS HORNIKETA. EDP	15.000,00 €
3	MAILEGUAREN INTERESAK	4.200,00 €
4	ZAINTZA SAREA	15.000,00 €
6	ZERBITZUETAKO FURGONETA	10.800,00 €
7	DUS 5000. ITZIARKO ARGITERIA	118.894,00 €
	GUZTIRA	435.436,00 €
ERABILITAKO BALIABIDEAK		
Kap.	Kontzeptua	Zenbatekoa
8	ALTXORTEGIKO GERAKINA	435.436,00 €
	GUZTIRA	435.436,00 €

Gai hau Antolakuntza Batzordeak urriaren 16an eginiko bileran aztertu zuen eta aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du, Debako Udaleko 2023/02 kreditu aldaketa.



2023SPLE0012
12.bilera: OHIKOA 2023/10/26

5.- Onartzea, hala badagokio, Itziarko Toki Entitate Txikiko 2023 urteko 1. kreditu aldaketa.

Itziarko Auzo Udaleko 2023/01 kreditu aldaketa aurkezten da, guztira 118.894,00 eurokoa, honako xehetasun honekin:

GASTUAK		
Kap.	Kontzeptua	Zenbatekoa
6	DUS 5000. ITZIARKO ARGITERIA	118.894,00 €
	GUZTIRA	118.894,00 €

ERABILITAKO BALIABIDEAK		
Kap.	Kontzeptua	Zenbatekoa
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK. DEBAKO UDALA	118.894,00 €
	GUZTIRA	118.894,00 €

Gilen Garciak, ekarpen gisa, adierazten du aintzat hartuta Osoko Bilkura herriari zuzendutako bilkura dela, kreditu aldaketetan eta halokoetan, gaia aipatzeaz gain komenigarria izan litzaketela aipatzea zeintzuk diren aldaketa esanguratsuenak, zergatik egiten den, zer prozedura jarraitu den, eta abar

Gai hau Antolakuntza Batzordeak urriaren 16an eginiko bileran aztertu zuen eta aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzak, aho batez, onartzen du, Itziarko Auzo Udaleko 2023/01 kreditu aldaketa.

6.- Onartzea, hala badagokio, "Oldarraldiaren aurrean Euskararekin bat" Adierazpen Instituzionala.

Alkateak adierazpena irakurtzen du:

«ADIERAZPENA

Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat

Egun hauetan jakin dugu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin dituela Eusko Jaurlaritzaren 179/2019 Dekretuaren hainbat artikulua. Udal Legea garatzen du dekretuak, eta hizkuntza ofizialen erabilera arautzen du. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak uztailean Udal Legeari buruz emandako epaiaren ostean, Dekretuaren aurka egin du berriro Auzitegi Nagusiak, beste bi epairekin. Epai hauek euskararen ofizialtasuna bera ere zalantzan jartzen dute, askotan Udal Legeak arautzen ez dituenak ere aurreikusiz, modu prebentiboan.

Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalarekin onartu zuen epaitegiek baliogabetu nahi duten Udal Legea, eta azken Inkesta Soziolinguistikoa ere argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hauek euskararen biziberritzearen aurkakoak ez ezik adostasun sozial handi baten kontrakoak ere badira. Azken

batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen dute auzitan.

Horren aurrean, honako hau adierazpen hau egin nahi du Udalak:

- 1. Kezkaz eta larritasunez hartu ditugu euskararen indarberritze-prozesuaren aurkako azken epaiak, guztietan berbera izan baita norabidea. Epai hauek traba dira urteotan euskara sustatzeko bidean adostasun handiz eraiki den orubearentzat.*
- 2. EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiak bete-betean eragiten diete UEMAk eta bertako kide diren udalek urte askoan jorratutako lan-ildoak: hizkuntza-plangintzari, kontratazioari eta euskara lehenesteari, adibidez. Udalak helburu nagusien artean du udalerrian euskara normalizatzea eta herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta sententzia hauek oztopoa besterik ez dakarte. Hori jarri baitu ezbaian auzitegiak: euskararen normalizazioa. Euskara lehenestearen aurka egin du, gaztelania baztertzea delakoan. Ez da halakorik, ordea: minorizatutako hizkuntza aurrerabidera eramatea da, eskubide guztiak bermatzeko.*
- 3. Sententzia horiek bereziki eragiten diete udalerrri euskaldunei, horietan ari baitira hartzen euskaraz funtzionatzeko neurri gehien. Hori oztopo bikoitza da euskararen indarberritze-prozesuarentzat: batetik, galga jartzen diete euskara normalizatzeko neurri aurreratuenei, eta normalizazio-prozesuak badauka horren premia; bestetik, euskarak indar handiena duen lurralde-eremuei eragiten diete, eta gune horien premia gorria du euskarak. Udalerrri euskaldunek ezinbestekoa dute lege-babesa.*
- 4. Udalerrri euskaldunetan, hainbat arlotan aurrera egin du euskarak hamarkada hauetan, baina oraindik bada zertan eragin. Udalean bertan ere urrats handiak egin ditu euskarak, eta gaur egun, zerbitzu-hizkuntza ez ezik, lan-hizkuntza nagusia ere bada euskara. Horretan jarraitzeko asmo sendoa du Udalak, eta aurrerantzean ere martxan jarriko ditu bere esku dauden neurri eta plangintza guztiak. Euskara da gure udalerriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko konpromisoa dauka Udalak. Justiziazkoa da.*
- 5. Udalak, asmo hori garatu ahal izateko, ezinbestekoa du lege-orube sendoa. Hortaz, Udalak dei hau egin nahi die lege-araudia garatzeko eskumena duten gainerako erakunde guztiei: nork bere eskumenekin eta elkarlana oinarritzat hartuta, urra dezagun bidea euskararen indarberritze-prozesua lege-babes sendoarekin hornitzeko.*
- 6. UEMAk bat egin du Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4an Bilbon antolatutako manifestazioarekin, eta epai hauek beste arrazoi bat jarri dute kalera ateratzeko: euskararen aurkako oldarraldia eten egin behar da. Horregatik, UEMako kide den heinean, euskararekin bat egiteko eta Bilboko mobilizazioan parte hartzeko deia egiten die Udalak herritarrei.*

2023ko urriaren 26an»

Udalbatzak, aho batez onartzen du “Oldarraldiaren aurrean Euskararekin bat” adierazpen instituzionala.

Gilen Garciak hitza hartzen du esateko adierazpen horren harria eta Udalak dituen hizkuntza irizpenei lotuta, eta UEMAn bertan markatzen diren irizpenei lotuta, batez ere herritarrekiko komunikazioan, sare sozialetan, buletinean eta abarretan UEMAn euskara lehenesten dela eta horren aldeko apustua egiten dutela, batez ere ikusita adierazpen honekin bat egiten dugula, eta euskarak indar gehien duen eremuetan eta arnas gunetan euskara bultzatu behar dugula kontuan izanik, azken astetan egon den aldaketa berriro ere bere onera ekarri eta euskara lehenestea eskatzen dugu.

Alkateak erantzuten dio komunikazio alorrean enpresa aldaketa egon dela, eta enpresa aldaketa



2023SPLE0012
12.bilera: OHIKOA 2023/10/26

egiterakoan hainbat zailtasunak izan direla, aldez aurretik erabiltzen ziren plataforma horiek lehen erabiltzen ziren bezala erabiltzeko, eta horietako bat izan dela egon den eraso, edo arazoa. Lehengo buletinean ez zen aukerarik egon, eta bi hizkuntzak parekotasunez joan zirela, nahiz eta euren nahia beti izan den euskara lehenestea eta, orain arte bezala, gaztelaniaz irakurri ahal izateko botoi bati eman eta bigarren aukera bezala jartzea. Eta bigarren astean ezin izan dutela buletina igo, plataformarako sarbidea ezabatuta zegoelako, norbait Udalaren kontuan sartu eta Udalaren korreoa erabilia plataforma horretan Udalaren sarbidea borratu zuelako, eta horrekin batera, Udal buletinean izena emanda zuten 518 bizilagunen helbideak ere borratu egin direlako. Gora behera horiek egon direnez, horregatik azken bi astetako buletina desberdina izan dela, baina euren nahia dela Udal buletinak orain arte egin duen ibilbidearekin jarraitzea, hizkuntza irizpideak orain arte bezalakoak izatea eta mantentzea, eta ahal duten neurrian, bere onetara ekartzea, eta datu horiek berreskuratze bidea egitea.

Gilen Garciak eskertzen du horren berri izatea, eta eraso hitza erabili denez, aztertu beharreko zerbait dela, eta kudeaketa arazoa izan bada, eta ez eraso, aurreko enpresarekin artekari lanak egiteko bere burua eskaintzen du, aintzat hartuta berak, udal gobernuaren ordezkari bezala, harreman zuzena izan duelako enpresa horrekin. Bestalde lan egin bazen hainbat herritarren helbideak lortzen eta abar, datu horiek Udalarenak direla, eta ez enpresa batenak. Horregatik benetan zer gertatu den argitu beharra dagoela, eta kudeaketa horretan aurrerapausoak ematen diren heinean horren berri izatea eskatzen du.

7.- Onartzea, hala badagokio, EH Bilduk aurkeztutako mozioa: “Donostia-Zumaia tren-linea hobetzeari buruzkoa”.

Gilen Garcia, EH Bilduko bozeramaileak, mozioa irakurtzen du:

«Mozioa: Donostia-Zumaia linea hobetzeari buruzkoa.

ZIOA

Egun, Zumaia eta Donostia arteko trenaren maiztasuna ordu betekoa da asteburuetan, ekaina eta iraila arteko larunbatetan ordea, ordu erdikoa da maiztasuna. Honen ondorioz, asko dira trenak gainezka doazen egunak. Honek ondorio kaltegarriak ditu erabiltzaile askorengan, batez ere adindun eta mugikortasun urria dutenengan. Zenbaitetan, zerbitzuko trenak nahikoak ez direnez, erabiltzaile batzuk ordu bete itxaron behar izaten dute hurrengo trena hartzeko.

Horretaz gain, Debarrenako eskualdeak Zumaiarekin duen trenbide loturan hobekuntzak egiteko eskaria egin zuen “Euskotren 30 minuturo” plataformak, Debarrena eta Urola-Kostako hainbat herrietan 5.000 sinadura baino gehiago lortu ostean. Eibar eta Zumaia arteko tren zerbitzua hobetzeko asmoz, eskaria minimoetatik abiatu zen. Egunerokoa ezinbestekoak diren ordu tarteak indartzea proposatu zen, hau da, puntako orduak indartzea: goizez 07.00etatik 09.00etara, eguerdian 13.00etatik 16.00etara, eta iluntzean 19.00etatik 21.00etara.

Kostaldeko trenaren zerbitzua nabarmen hobetuko luke obrarik behar ez duen aldaketa batek: Gipuzkoako Kostaldeko trenaren linea Debaraino luzatzeak. Linea Zumaian beharrean Deban

amaituko balitz, beste bi geltokitara zabalduko litzateke zerbitzua eta kostalde osoari emango lioke zerbitzua.

Hori dela eta, honakoa eskatzen du udalbatza honek:

1. *Debako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskotrenek Gipuzkoako kostaldeko E1 linean ematen duen tren zerbitzua hobetu dezala:*
 - a) *Tren zerbitzuak, urte osokoak zein aldian aldikoak, Debaraino luzatuz.*
 - b) *30 minutuko maiztasuna ezarriz aste osoan eta urte osoan.*
2. *Debako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Euskotrenek zerbitzu hobekuntza hauek egiteko beharrezkoak diren inbertsioak egin ditzala.*
3. *Debako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Gipuzkoan zerbitzua ematen duten Euskotreneko E1 lineako ordutegi eta ibilbideetan proposatzen diren hobekuntzak gauzatu ditzala, milaka gipuzkoarren mugikortasuna hobetzeko helburuarekin.*
4. *Debako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Altzolako saihesbidearen proiektua aurreikusitako epean amaitu dezala, eta ondoren Deba eta Elgoibar arteko maiztasuna 30 minutukoa izan dadila herritarren mugikortasun aukerak hobetzeko helburuarekin.»*

Alkateak adierazten du bozkatu aurretik hainbat gauza argitu nahi duela: Urriaren 11n ETSra egin zutela bisita eta Ernesto Martinez de Cabezudorekin, bertako zuzendari nagusia, egin zutela bilera, eta beste kontuez gain, tren maiztasunaren inguruko kontu hau ere adierazi ziotela, eta esan ziotela egon dela plataforma bata 6.000 sinadura inguru bildu zituena, maiztasuna 30 minutukoa izan dadila eskatzeko. Horrekin era bat ados daudela, eta horrela eskatu ziotela. Eibar- Donostia egiten duten tren guztiak bi herritan baino ez dutela ordu beteko maiztasuna, Deba eta Mendaro, eta kontuan izan behar zela ere Deba, kostaldeko herria izanik, Debako geltokiak ez diola Debara bakarrik zerbitzua ematen, baizik eta baita Mutrikuri, gutxienez, eta askotan Ondarroara ere, eta azaldu ziotela eskaera hori kontuan hartzekoa izan beharko zela, eta jaso zuten erantzuna izan zela aztertuko dutela maiztasun hori jartzeko aukera.

Gilen Garciak adierazten du eskertzen duela azalpenak. Berak pertsonalki ezagutzen zuela, baina, beste denak ezagutzeko balio izan duela, eta bide beretik bultzatzen jarraitzera gonbidatzen dutela, eta euren babes osoa edukiko dutela alor horretan. Mozioaren lanketari dagokionez, Alkatearekin kontrastatzek aukera izan zuela, eta bere aldeko iritzia adierazi ziola, baina alderdi gisa ez dutela erantzunik jaso udal gobernua osatzen duten bi alderditik. Horrez gain, aipatzen du gai hau Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Batzar Nagusitan landu izan dela. Urriaren 18an, Batzar Nagusitako Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketa Batzordearen bilera egin zen, eta bertan PNV-ek eta PSE-ek akordio bat zuten, Eusko Jaurlaritzan bideratu zutena, neurri hauen alde desegitea erabaki zuten. Hala ere Alderdi Popularrak eraman zuen proposamena Batzar horretara, baina, azken momentuan jarrera aldatu zuen, eta, euren iritziz, jarrera aldaketa horrek Debari baino ez dio kalterik egiten. Erabaki hori hartzeko egin daitezkeen arrazoiak ez dituztela ulertzen, eta Debak egindako eskaerak ez dute erantzunik jaso, edo, behintzat ez dute zentzuzko arrazoiak azaldu. Debabarrenan inbertsiorik ez badira egiten, eta Debako luzapen horrek ez du aparteko inbertsiorik eskatzen, Altzolakoa, mozioaren 4. puntuan aipatzen dena, izan ezik. Eta azkenik, aipatzea, horrek Arroako biztanleei ere, gure eskualdekoak ez badira ere, zerbitzua emango ziela. Bukatzeko, alderdien lerrokatzearen harira, aipatu nahi duela, Podemoseko batzarkideak, hain zuzen Orain Debako zerrendan bigarrena izan zena, aipatu zuela, debarra bezala, sufritzen duela egoera hori, baina, azkenean, abstenitu egin zen, eta Batzar Nagusiko Batzorde horrek aurrera egin zuen ekarpen hau jaso gabe. Hortaz, Udalerri ikuspegiz, eta egin direnak aintzat hartuta,



2023SPLE0012
12.bilera: OHIKOA 2023/10/26

iruditzen zaiela hau zentzuzko posizioa dela, eta alderdi guztiek babestu beharko luketela, are gehiago garraio publikoa sustatu behar dela aldarrikatzen den garia honetan.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aldeko bost (5) botorekin eta zazpi (7) abstentziorekin, onartzen du: “Donostia-Zumaia tren-linea hobetzeari buruzko mozioa”, EH Bilduk aurkeztutakoa.

8.- Eskari eta galderak.

Alkateak galdetzen du ea inork baduen eskaera edo galderarik.

Gilen Garciak azaltzen du hainbat galdera dituztela bi gai ingurukoak, nahiz eta antzeko gaiak izan.

8.1.- Urriaren 19an eta 20an alerta egon zen denboralagatik, eta ekarpen gisa, halakoetan kostaldean hesiak jartzea komeni dela kalte handiak gerta ez daitezen. Kasu horretan ez zen hain larria izan eta ez ezer gertatu, baina, adibidez, Ondargain tabernako terraza muntatu zegoen eta, hor bai, arriskua dagoela dena galtzeko eta Udal azken arduraduna denez, esleipendunarekin hitz egitea komeni da. Hori ekarpen gisa azaltzen dutela.

8.2.- Itsas-Gain parean hondartzarako dagoen baranda hori irailetik edo dago apurtuta, bi gantxo dauzka gorantz begira, eta onena litzateke edo konpondu edo baranda bera kendu. Konpontzea litzateke irtenbide onena, azken finean, hondartzarako sarbide ofizial bakarra delako.

8.3.- Eta azkenik, gogoraraztea erantzun gabe daudela orain hilabeteko osoko bilkurako eskaerak: Simon Berasaluzeko udal bulegoak, teknikariaren txostena eta proiektua ez elkarrekin landuta egingo ote diren edo ez; zezen plazako egurrena eta gainkostuak apartekoak edo arruntak izan ote zizen; Miramarreko lursailaren inguruko espedienteak, Next Funtsak, eraikin publikoei dagokienean proiektua aurkeztuko zela adierazi zen, eta ea proiektu horren berri edukitzerik ba ote dugun; eta baita ere jaietako komunikazioarena.

Alkateak, azaltzen du erantzun gabe gelditu zirenetik hasiko dela erantzuten.

8.3.- Zezen plazaren muntaketa eta kostuei dagokionez, aurten, legeak hala eskatuta, moldaketa batzuk egin behar izan zizkiotela zezen plazari, eta 50.000 euro aurreikusitako baziren, azkenean kostua 81.000 eurora igo da. Aipatutako egur horiek ez zeuden aurreikusita hasierako aurrekontuan, eta berriak jarri behar izan dira, esan bezala hainbat moldaketa egin behar izan zaizkiolako legera etorri ahal izateko.

Udal bulegoei dagokienez, teknikariek proposamen batzuk aurkeztu zituzten, eta aukera horiek zer izan daitezkeen zain daudela, eta horien berri izatekoan jakinaren gainean jarriko dituztela, eta erabakiko dela Simon Berasaluzerekin zer egin behar den.

Miramarreko lursailari dagokionean, eskatu dietela horren inguruko bilera bat, eta hemendik bi astera dagoela eguna hitzartuta .

Next Funtsak eta udaletxearen birgaikuntza direla, komentatu zutela bazegoela aurreproiektu bat orain urte batzuetakoa egin zen momentu hartan zeuden arazoei erantzun ematen zioena. Ordutik gauzak aldatu direla eta Next Funtsak dirulaguntza eskatu nahi denez, Deba arkitekto bati eskatu zaiola aurreproiektua idatz dezala, eta horretako kontratu txiki bat egin dela.

Dirulaguntza lortzen bada, orduan aztertuko da zer egin beharko den eta nola.

Jaietako komunikazioaren harira, erantzun zuela, kanpoko proposamen bat egon zela argazki erreportaje bat egiteko, eta Kultura teknikariak azaldu zuela iaz ere egin zela, eta erreportaje hori egitea komeni zela argazki horiek eduki ahal izateko gero programatan jartzeko edo Udalak erabaki ditzakeen beste erabileratarako. Momentu horretan Mundu Mirako Udaleko komunikazio arduraduna zenak, Ander Salegi, proposatu zuela berak ere egin zezakeela lan hori beste enpresak eskatutako prezio erdian, eta berari eman zitzaion lan hori.

8.1.- Urriaren 19an eta 20an alertaren harira, hesiak jartzeko Kostaseko baimena behar dela, baimen hori eskatu zen, eta aste honetan iritzi da horiek jartzeko baimena, eta jarriko direla neguari begira. Horren harira, Ondargainen aurreko aldean orain arte beti hondarrezko mendia jarri izan dela, eta hori jartzeko ere Kostasi baimena eskatu behar zaiola, eskatu dela eta, Kostasekoi mendi hori jartzea gustatzen ez bazaie ere eta pega asko jartzen badute ere, emango dutela baimena. Hala ere, orain arte hondartza garbitzeko makina erabili izan dela mendi hori egiteko eta aurten esaten dutela traktore horiek lan hori egiten jarriz gero hondatu daitezkeela hondarra sartzen zaielako barruan eta hainbat mekanismoetan arazoak sortu daitezkeelako. Horrela, seguruenik, Udalak hartu behako duela bere gain lan horiek egiteko makinaren kontratazioa eta horrek ekar lezakeen kostua.

8.2.- Itsas-Gaineko sarrerako baranda dela eta, brigada buruarekin hitz eginda, hesiak jarri behar direnez, neguan ez dela ezinbestekoa ikusten baranda hori, eta, horregatik, orain jaso egingo dela, gorde egingo dela, eta udaberrian berriro jarriko dela bere lekuan.

Antxoka Elorzak hitza eskatzen du hau adierazteko barandaren inguruan asuntua ez dela noiz kendu edo noiz jarri, irailaren 15etik edo dagoela apurtuta eta oso egoera arriskutsuan. Alertak direla eta, denok dakitela hesiak jartzeko Kostasen baimena behar dela, baina harritzekoa dela, Udaltzainek plastikozko zintak edo arriskua adierazteko, beste herritan (Zarauzko malekoian, Donostiako paseo berrian) jartzen diren bezala, eta harridura sortzen duela ostiralean Ondargaineko terraza oso muntatua egotea, leihoak eta inolako babesik gabe egotea, aintzat hartuta ura sartzen bada edo zerbait hondatzen bada Udalari dakarren kostua

Beste aztergairik ez dagoenez, 19:30tan alkateak amaitutzat ematen du Osoko Bilkura.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

